



AKTEA/12

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

(2026-06-02)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-06-02 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:30
Amaiera-ordua:	08:38
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449

Fecha: 03/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-05-26 TGB (11)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Arresi Kalea, 42n eraikineko fatxada birgaitzeko obra lizentzia onartzea.
- 4.- *Gure zirkua* Bermeora ekartzeko Gure zirkua, SL-ren eta Bermeoko udalaren arteko hitzarmena sinatzea onartzea.
- 5.- Alkartasuna dantza taldearekin 2026 urteko zuzeneko dirulaguntza hitzarmena onartzea.
- 6.- Andra Mari 21-1 esk obra etxebizitza bitan banatzea onartzea.
- 7.- Matxitxako bidea,8 eraikinean lehen solairuko forjatuaren egitura indartze obrak egiteko obra lizentzia onartzea.
- 8.-Alkatetza dekretuen berri emotea. Maiatzak 18-22.
- 9.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Eraitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-05-26 TGB (11)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko maiatzaren 26ko 11/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.



Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- ARRESI KALEA, 42N ERAIKINEKO FATXADA BIRGAITZEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA.

Xedea

Arresi kaleko 42. zenbakian dagoen eraikinaren fatxadak saneatzeko eta hobetzeko obra-baimenaren eskaera.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2023ko azaroaren 2an, 07950124J NAN zenbakidun jaunak, Arresi kaleko 42ko Jabe Elkartearen izenean, bere eraikinaren fatxadak SATE bidez birgaitzeko obra baimena eskatu zuen eta horretarako, BAU arkitektoak eginiko proiektua aurkeztu zuen. Proiektu horri, aldordioak instalatzeari buruzko txostena erantsi zitzaion.

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiarekin aurkezten da (2023-10-09), eta proiektuan, Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana daude.

Aurkeztutako Proiektuarekin batera, eraikitzailearen aurrekontua aurkezten da. Eraikitzailearen aurrekontuaren arabera, 171.555,40 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (169.943,40 euro segurtasun eta osasun partida kenduta).

Bigarrena.- 2024ko apirilaren 9an, udal arkitektoak txostena egin zuen dokumentazio osagarria eskatuz.

Hirugarrena.- 2024ko maiatzaren 9an, 07950124J NAN zenbakidun jaunak, Arresi kaleko 42ko jabe-kideen erkidegoaren izenean, " Contestación a requerimiento municipal de la arquitecta asesora del Dep. de urbanismo" dokumentazioa aurkeztu zuen. Honako dokumentuak aurkeztu ziren: erantzun-txostena, 2023ko urriaren 9an ikus-onetsitako planoak, eta plano berriak (19,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

20 eta 21 zenbakidunak).

Laugarrena.- 2024ko abenduaren 5ean, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean fidantza aurkeztu zuten.

Seigarrena.- 2026ko maiatzaren 26an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2023ko azaroaren 2an aurkeztu zen lehen proiektua, eta 2024ko maiatzaren 9an dokumentazio osagarria; ondoren 2024ko abenduaren 5ean egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

“Proiektuaren xedea da plaketazko akabera duen fatxadako akatsak ahalik eta gehien gutxitzea eta zuzentzea, akabera moduan margotutako zarpiatzea duen fatxadako pitzadurak eta altxaturak kentzea, eta etxebizitza batzuetan infiltrazio puntualengatik agertutako hezetasunak konpontzea (Iparraldeko eta Ekialdeko orientazioetan, mehelineko buruhorma batean).

Proiektua honetan datza:

- *Zeramikazko plaketaz egindako gainazaleko akaberak konpontzea, esku-hartzea garbiketa orokorra izanik. Gainera, lehendik dauden fibrozementuzko plakak kenduko dira, ateburu batzuen berrikuspena eta konponketa puntualak egingo dira, eta erortzeaz egon daitezkeen pitzadura eta piezak ere konponduko.*
- *SATE motako isolamendu jarraiaren instalazioa, 80 mm-ko EPS plaken bidez (egungo plaketak izango dira euskarria), kolorezko akrilikoko jarraikako-akabera duena.*
- *Dauden leiho-barrenak eta isurkiak kendu (hegoaldean eta ekialdean) eta aluminiozko beste batzuegatik ordezkatu.*

Beste lan batzuk hautazkoak dira:



- Gaur egun eskailerek duten beira-pabeseke itxitura arotzeria berriagatik aldatzea (planoen arabera aluminio lakatuzkoa, eta memoriaren arabera aluminio anodizatukoa).
- Egungo errementaritzako babesen orde, brontze edo antzeko koloreko aluminiozko oin anodizatuak dituzten beirazko barandak jartzea.

Ez da esku hartzen estalkian, sorkuntza termikoko instalazioetan, beheko solairu eta merkataritzako lokalen arteko forjatuan, ezta etxebizitza-arotzerian ere (bai, ordea, eskailera-gunekoan).”

Bigarrena.- 2024ko abenduaren 5ean, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

“Proposamena

Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren 62. eta 64. artikulua bete beharko dira koloreei dagokienez. Horregatik, kolorea aplikatu aurretik, udaleko arkitektoari jakinaraziko zaio zer kolore-gama aplikatu behar den, kolorea Plan Berezian jasotakoarekin bat datorren edo ez ikusteko.

Hortaz gain, proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko, beti ere kolore suabeak erabiltzen badira.

Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:

- Udal bulego teknikoarekin adostuko da fatxaden kolorea. Betiere, kolore suabeak izango dira, San Juan Atariarekin pasaiarekin eta ingurunearekin diskordantziarik sortzen ez dutenak.
- Obra hasi aurretik, aurkeztuko da aldamiaoa jarriko den espaloien plano akotatua. Bertan espaloian dauden elementu guztiak adieraziko dira, hala nola, arketak, erregistroak, hidranteak, farolak, zuhaitzak, postontziak, semaforoak, e.a.
- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Fecha: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidadaea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.

- Eraikuntzaren kode teknikoaren, EKT aldatzen duen 732/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da, baita bere oinarrizko dokumentuek zehazten dutena ere. (DB-SUA, DB-SI, DB-HS, DB-HE).

- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen bete beharko da.

- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

Onartutako proiektuaren edozein aldaketa, aldeztu aurretik, Udalari jakinaraziko zaio.

- Obrak gehienez hiru hilabeteko (3) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta sei (6) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hilabete (1) baino luzeagoa izan.

Aipatutako epeak betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat joko da eta efekturik gabekoa. Honen ondorioa obra gelditzea izango da, eta bakarrik egin ahalko dira pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzen duten

6



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449

Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

obrak.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzen eta bisatu gabe falta den dokumentazioa aurkeztu beharko da Udalean.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde zuzenetik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.

- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira Udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta

7



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidaidea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0



likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.



c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispn-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- *Instalatzailleak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkartzak abalatu.*”

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2023ko azaroaren 2an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu:

- Memoria deskribatzailea eta eraikitzailea
- Baldintza-agiria
- Exekuzio Materialeko Aurrekontua 171.555,40 € (169.943,40 euro segurtasun eta osasun partida, kontrol kalitatearen partida, eta hondakinen kudeaketarako partida kenduta)
- Kalitatea Kontrolatzeko Plana
- Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarritzko azterlana
- Eraikuntzako hondakinen kudeaketari buruzko azterlana (362 €)
- Planoak

9



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449

Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

- Aldamiaoa instalatzeko ziurtagiria eta aldamio-planoak

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2024ko abenduaren 5ean egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, 2026ko maiatzaren 26an.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikularen eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikularen arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikularen esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamendurekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabetetan exekutatuko dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikulua arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

Fidantzak



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



1. Aldamioak

Obrak egikaritzeko aldamioren instalazioa dela eta urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik: **1.000** euro.

2. Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (362,00 €), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispén- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **434,40** eurokoa izango da.

Fidantzen gordailu adierazpena espedientean ageri da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2023ko azaroaren 2an, 07950124J NAN zenbakidun jaunak, Arresi kalea, 42 jabe elkartearen izenean, eraikineko fatxada SATE bidez birgaitzeko eskatutako lanen obra-baimena **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziaren 62. eta 64. artikulua bete beharko dira koloreei dagokienez. Horregatik, kolorea aplikatu aurretik, udaleko arkitektoari jakinaraziko zaio zer kolore-gama aplikatu behar den, kolorea Plan Berezian jasotakoarekin bat datorren edo ez ikusteko.

Hortaz gain, proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko, beti ere kolore suabeak erabiltzen badira.

Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:

- Udal bulego teknikoarekin adostuko da fatxaden kolorea. Betiere, kolore

12



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

suabeak izango dira, San Juan Atariarekin pasaiarekin eta ingurunearekin diskordantziarik sortzen ez dutenak.

- Obra hasi aurretik, aurkeztuko da aldamiaoa jarriko den espaloiaaren plano akotatua. Bertan espaloian dauden elementu guztiak adieraziko dira, hala nola, arketak, erregistroak, hidranteak, farolak, zuhaitzak, postontziak, semaforoak, e.a.

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den adieraziko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Bermeoko HAPOaren IV. Tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.

- Eraikuntzaren kode teknikoaren, EKT aldatzen duen 732/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da, baita bere oinarritzko dokumentuek zehazten dutena ere. (DB-SUA, DB-SI, DB-HS, DB-HE).

- 68/2000 DEKRETUA, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen bere bete beharko da.

- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

Onartutako proiektuaren edozein aldaketa, aldeztu aurretik, Udalarri jakinaraziko zaio.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEŞ SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Fecha: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

- Obrak gehienez hiru hilabeteko (3) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta sei (6) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hilabete (1) baino luzeagoa izan.

Aipatutako epeak betetzen ez badira, lizentzia iraungitzat joko da eta efekturik gabekoa. Honen ondorioa obra gelditzea izango da, eta bakarrik egin ahalko dira pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzen duten obrak.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzen eta bisatu gabe falta den dokumentazioa aurkeztu beharko da Udalean.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldezturik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.

- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira Udalean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txostena aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Data: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitorpena.

- - Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.

HIRUGARRENA.- Eraikitzailearen aurrekontuaren arabera, 171.555,40 eurokoa izango da obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua (169.943,40 euro segurtasun eta osasun partida kenduta).

LAUGARRENA.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua eskatzen duen gutxiengo edukari dagokionez, honakoak izango dira lizentziaren epeak:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabetetan exekutatu dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

BOSGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

esklusiboan.

SEIGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

ZAZPIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributuak likidatzeko.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

4.- GURE ZIRKUA BERMEORA EKARTZEKO GURE ZIRKUA, SL-REN ETA BERMEOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Gure zirkua Bermeora ekartzeko Gure zirkua, SL-ren eta Bermeoko udalaren arteko hitzarmena sinatzea onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Gure zirkua, SLk eskaintzen duen zirku ikuskizuna da *Gure zirkua*. Herriz herri dabilen zirku euskalduna da eta Bermeora ekarri gura da.

Bigarrena: Gure zirkua, SLk (IFZ: B75206276) eta Bermeoko Udalak alde bietako interesa dute *Gure zirkua* Bermeora ekartzeko. Hori dela-eta, Gure zirkua, SL-k hitzarmena sinatzeko interesa eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ditu zirkuaren ordezkari den 44140020F NAN zenbakidun jaunak 2026ko maiatzaren 11n aurkeztutako 2026 00006901 sarrera zenbakidun idazki bidez.

Hirugarrena: Bermeoko Udaleko Mandatu planaren Bermeo bizia ardatz estrategikoan honako erronkak planteatzen dira: herria erakusleiho artistiko eta kultural bihurtzea; ume, nerabe eta gazteei aukera hezigarriak eskaintzea; eta herritarrak, euskaraz bizi daitezen lortzea, euskara bereizgarri eta erakargarri

17



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449

Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0



eginez.

Gure zirkuak aisialdirako aukera hezigarria eskaintzen du eta euskararen erabileran eragiteko egokia da. Izan ere, *Gure zirkua* euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitzeko ikuskizun baliagarria da; gizartearentzat erreferentzialtasuna duen zirkua da.

Hori horrela izanik, berebiziko erronka da udalarentzat orain arte gaztelaniaz izan dugun diziplina bat euskaraz ekartzea, herritarrak oro har, eta ume eta gazteak bereziki, baita familiak ere, euskarara hurbiltzeko helburuarekin. Euskaraz sortutako kultur produktua da, euskal kulturarekin eta identitatearekin lotura zuzena duena.

Laugarrena: Interes orokorreko ekintza bat da. Hori horrela, *Gure zirkua* Bermeora ekartzeko baldintzak, betebeharrak eta eskubideak jasotzeko beharrezkoa da hitzarmena sinatzea.

Bosgarrena: Hitzarmen honetatik eratorriko diren udalaren betebeharrak betetzeko, hau da, argindarra eta komuna jartzeko, udala konprometitzen da gastu horiek bere gain hartzen. Zerbitzu Sailak Burujabetasun zelaian argindarra jartzeko aholkularitza teknikoa eman du. Bestalde, Euskera Saileko 2026ko aurrekontuetan badago kontsignazio nahiko argindarra eta komunak kontratatzeko, eta Ekonomia Sailean argindarraren kontsumoa estaltzeko.

Hitzarmen honen ondorioz eratorriko diren gastuetarako partida hauek daude aurreikusita:

- 3.452,002 (BEZ barne). Mangera alokairua, aldi baterako argindar koadro ziurtatua eta homologatua, eta instalazioa legeztatzekeo ziurtagiria (boletina) Euskera Saileko Euskeraren erabilera sustatzea, Makineria, instalazioak eta tresneria partidatik. Partida zk.: 01400 33560 2120100
- 1.600,00€ (BEZ barne). Kontsumo elektrikoa (aldi baterako hartunea), Ekonomia eta Ogasuneko partidatik. Partida zk.: 00300 92920 2210100



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- 1.267,00€ (BEZ barne). Komunak, Euskera Saileko Euskeraren erabilera sustatzea. Alokairuak: Makinak partidatik. Partida zk.: 01400 33560 2090102

Beraz, Gure zirkuarekin sinatuko den hitzarmenetik eratorriko den gehiengo gastua 6.319,00 izango dira.

Seigarrena: 2026ko maiatzaren 12an, Euskara Saileko teknikari-trebatzaileak hitzarmenaren justifikatze memoria egin zuen.

Zazpigarrena: 2026ko maiatzaren 13an, Idazkaritzako AOTak aldeko txosten juridikoa egin du.

Zortzigarrena: 2026ko maiatzaren 26an, Euskera Saileko teknikari-trebatzaileak hitzarmenaren justifikazio memoriaren zuzenketa egin du.

Bederatzigarrena: 2026ko maiatzaren 27an, kontu-hartzaileak fiskalizazio txostena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Hitzarmen hau ez dago Arlo Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean arauturiko kontratuen artean. Izan ere, bere barne hartzen dituen erakundeen helburua ez da merkatua, eta hitzarmenaren helburua arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera modu bateratuan eta elkarlanean bideratzea da.

Eta Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Orokorra onartzen duen 39/2015 Legearen 86. artikulua, honako hau jasotzen du hitzarmenak sinatzeko ahalmenaren inguruan: "1. Administrazio publikoek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, baldin eta ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten kontuen gainekoak ez badira, eta babestu behar duten interes publikoari erantzutea badute xede; betiere, kontuan izango dituzte prozedura arautzen duen xedapenean ezarritako irismena, ondorioak eta araubide juridiko espezifikoak. Egintza horiek administrazio-prozedura amaitzen dutela jo daiteke edo bestela prozeduran sartu, aurretiko moduan,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

prozedura amaitzen duen ebazpena baino lehen, lotesle gisa edo ez”.

Bigarrena: Sektore publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legean hitzarmenei ezarritako baldintzak betetzen dira.

Hirugarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari dagokionez, Toki Erregimenaren 7/1985 Oinarri legearen 21.1. artikulua b), f) eta r) atalen arabera, alkateari dagokio, eta 2024ko apirilaren 24ko 1886 Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Baina oporraldietarako delegazioen egoera zehazten duen 2023ko ekainaren 29ko 3.099 Alkatetza Dekretuaren arabera, oporraldian Alkateak berreskuratzen du erabaki hau hartzeko ahalmena.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: *Gure zirkua* Bermeora ekartzeko Gure zirkua, SL-ren eta Bermeoko udalaren arteko hitzarmena sinatzea onartzea.

BIGARRENA: Gure Zirkua, SL-ri erabakiaren berri ematea, hitzarmena sinatu dadin.

HIRUGARRENA: Kultura eta Hezkuntza Sailari, Zerbitzu Sailari, Idazkaritza Sailari, Euskera Sailari, Ekonomia Sailari, Kontabilitate Sailari eta Diruzaintzari erabakiaren berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabakiaren berri ematea.

5.- ALKARTASUNA DANTZA TALDEAREKIN 2026 URTEKO ZUZENEKO DIRULAGUNTZA HITZARMENA ONARTZEA.

Bertan behera gelditzen da puntu hau.

6.- ANDRA MARI 21-1.ESK OBRA ETXEBIZITZA BITAN BANATZEA ONARTZEA.



Xedea

Andra Mari 21eko lehenengo solairuko pisua hasierako egoerara bueltatzeko etxebizitzaren banaketa baimen eskaera.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2026ko maiatzaren 26an, 78873608F NAN zenbakidun andreak baimena eskatu zuen Andra Mari kaleko 21ean dagoen eraikineko lehenengo solairuko etxebizitza bi etxebizitzatan banatzeko (lehen zegoen moduan), eta horretarako ondorengo dokumentazioa aurkeztu zuen:

- Memoria
- Planoak
- Kontratuko aurrekontua: 1.904,32 €

Aurkeztutako aurrekontua kontratakoa da (1.904,32 €). Hondakinen kudeaketarako partida, segurtasuneko partida eta kalitate kontroleko partida kenduta 1.231,20 €-ko kontratuko aurrekontua izango litzateke. Azken zenbaki horretatik ondorioztatzen da exekuzio materialeko aurrekontua 1.034, 62 € dela.

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 28an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko maiatzaren 28an, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera, honako ekintza hauek hirigintzako lizentzia behar dute:

“207. artikulua.– Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzak.

1.– Jarraian adierazten diren ekintza hauek guztiek hirigintzako lizentzia behar dute –horrez gainera, aplikatzekoa den sektore-legeriak eskatutako baimenak ere lortu beharko dira:

a) Las parcelaciones y segregaciones o cualquier otro acto de división de fincas o predios en cualquier clase de suelo, no incluidos en proyecto de reparcelación.



(...)

e) Las obras que modifiquen la disposición interior o vayan dirigidas a la rehabilitación de las edificaciones, cualquiera que sea su uso, incluidas aquellas que supongan la división de la vivienda preexistente en dos o más viviendas.”

Bigarrena.- Aurrekarietan esan den legez, udal arkitektoak maiatzaren 28an egin zuen txostena, eta honakoa ondorioztatu zuen:

“Proposamena

Txosten honetan azaldutakoan oinarrituz, oker eta hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako segregazioa baimentzeko.

Egingo den obrak ez ditu eraikuntza-parametroak aldatzen. Obra txikia izango da.

Proiektua bat dator aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz, hirigintza ikuspuntutik ez dago eragozpenik eskatutako lanak baimentzeko. Nolanahi ere, ondorengo baldintzak eduki beharko dira kontuan:

- 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela, obra baimenak ez du baliorik izango.

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.

- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.

- Bermeoko HAPOaren 3.2.5 artikuluan zehaztu bezala, etxebizitzaren diseinua, 2009ko otsailaren 12ko aginduan oinarrituko da, Etxebizitza eta Gizarte



Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.

- Lanek kanpoaldeko itxuran edo fatxadan eraginik izango balute, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritako arauetara egokitu beharko da, hala, leihoak eraikineko bestelakoak izango dira, material, kolore eta diseinu berekoak eta eraikineko fatxadaren diseinuarekin bat egin beharko dute. Leihoetan pertsianak jarri nahi badira, eraikineko beste leihoetako pertsianen diseinu eta kolore berekoak izan beharko dira.

- Hornidura ezberdinen kontagailuen irakurketa egiteko ez da etxebizitza barrura sartu beharrik izango. Kaletik zuzenean edo eraikinaren kontagailuen armairuan kokatu beharko dira.

- Sukaldeko kanpaia ezin izango da aireztapen sistemara konektatu, etxebizitzak ez badu estalkira ke irteerarik, filtro sistemak erabili beharko dira.

- Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-HE eta DB-HS).

- Etxebizitza bakoitzak 5 metroko luzerako aria izango du esekilekuan.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkikeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.



- *Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldeztatik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.*

- *Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.*

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- *Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.*

- *Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.*

- *Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.*

Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- *Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, **lanek***



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoriarekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- *Instalatzailleak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.*”

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziiplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskara horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, honako hauek aurkeztu ziren eskaerarekin batera:

- Memoria
- Planoak
- Kontratako aurrekontua: 1.904,32 €

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko.

25



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko maiatzaren 28an egin zuen txostena.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko apirilaren 24an, 78873608F NAN zenbakidun andreak Andra Mari kaleko 21ean dagoen eraikineko lehenengo solairuko etxebizitza bi etxebizitzatan banatzeko eskatutako, eta 2026ko maiatzaren 26an aurkeztutako dokumentazioarekin osatutako segregazio eta obra baimena **onartzea**.

Aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartuz, segregazioaren ondorioz honako etxebizitzak sortuko lirateke:

“FINCA SEGREGADA:

*La VIVIENDA IZQUIERDA subiendo del PISO PRIMERO ALTO, de la casa de la nueva planta señalada con el número veintiuno de la calle Santa María, hoy ANDRA MARI, de Bermeo, que mide cuarenta y cinco metros cuadrados y veintiocho decímetros cuadrados, y linda: (...). -----
-----“*

“II.= RESTO DE FINCA MATRIZ.

Tras la segregación efectuada en esta escritura, el resto de finca matriz, queda con la siguiente descripción: -----

La VIVIENDA DERECHA subiendo del PISO PRIMERO ALTO, de la casa de la nueva planta señalada con el número veintiuno de la calle Santa María, hoy ANDRA MARI, de Bermeo, que mide el cuarenta y siete metros cuadrados y noventa y tres decímetros cuadrados y linda (...).-“



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

BIGARRENA.- Egin beharreko obrari dagokionez, arkitektoaren txostenean ezarritako hauetara baldintzatzea lizentzia:

- 112/2012 Dekretuak, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza zein den ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela, obra baimenak ez du baliorik izango.
- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Lanak egiteko okupazio publikoa beharko balitz, eskatu egin beharko da, kokapena eta azalera Udalarekin adostuz. Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerren kokapena.
- Bermeoko HAPOaren 3.2.5 artikuluan zehaztu bezala, etxebizitzaren diseinua, 2009ko otsailaren 12ko aginduan oinarrituko da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.
- Lanek kanpoaldeko itxuran edo fatxadan eraginik izango balute, Bermeoko Alde Zaharra Birgaitzeko Plan Bereziak ezarritako arauetara egokitu beharko da, hala, leihoak eraikineko bestelakoak izango dira, material, kolore eta diseinu berekoak eta eraikineko fatxadaren diseinuarekin bat egin beharko dute. Leihoetan pertsianak jarri nahi badira, eraikineko beste leihoetako pertsianen diseinu eta kolore berekoak izan beharko dira.
- Hornidura ezberdinen kontagailuen irakurketa egiteko ez da etxebizitza barrura sartu beharrik izango. Kaletik zuzenean edo eraikinaren kontagailuen armairuan kokatu beharko dira.
- Sukaldeko kanpaia ezin izango da aireztapen sistemara konektatu,



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



etxebizitzak ez badu estalkira ke irteerarik, filtro sistemak erabili beharko dira.

- Eraikuntzaren Kode Teknikoari dagokionez (EKT), Eraikinean egingo diren lanetan, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena eta bere garapenean eginiko oinarrizko dokumentuak. (DB-SUA, DB-SI, DB-HE eta DB-HS).

- Etxebizitza bakoitzak 5 metroko luzerako aria izango du esekilekuan.

- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.

- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta hiru (3) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.

Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Obren hasiera baino lehen eskatutako fidantzak aurkeztu beharko dira Udalean.

- Obrak dirauen bitartean, lizentziaren kopia bat eskuragarri eta ikusgai egongo da obran bertan.

- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, bai eta obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari alde aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarriz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea da, udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.



Sinadurea eta data



- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

Instalazio obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren Arkitektoak eta Arkitekto Teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, **lanek indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta Udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea**, sortu diren aldaketen memoriarekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatu.

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, obraren exekuzio materialaren aurrekontua 1.034, 62 eurokoa da.

LAUGARRENA.- Interesdunei erabakiaren berri ematea.

BOSGARRENA.- Hurrengo Osoko Bilkuran honen berri ematea.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Fecha: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



7.- MATXITXAKO BIDEA,8 ERAIKINEAN LEHEN SOLAIRUKO FORJATUAREN EGITURA INDARTZE OBRAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA ONARTZEA

Xedea

Matxixako bidea,8 eraikinean lehen solairuko forjatuaren egitura indartze obrak egiteko obra lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2025eko martxoaren 18an, Matxixako bidea, 8 jabe elkarteak, 78952085P NAN zenbakidun andreak ordezkatura, obra-lizentzia eskaera aurkeztu zuen Bermeoko Udalaren erregistroan, Matxixako bidea 8 zenbakian dagoen eraikinean egitura indartzeko obrak egiteko.

Espedientearen arabera, 2025/00003662 sarrera-erregistroarekin batera interesdunaren eskaera eta kontrataren aurrekontua aurkeztu ziren. Ondoren, "PROIEKTUA" izeneko sarreraren bidez, honako dokumentazioa aurkeztu da: memoria, planoak, aurrekontua, erabilera eta mantentze-jarraibideak eta dokumentazio osagarria.

Aurkeztutako proiektua "REFUERZO ESTRUCTURAL FORJADO PLANTA 1 EN CALLE MATXITXAKO 8. BERMEO" izeneko exekuzio-proiektua da, J.P.Z eta D.M.G de A. arkitektoek idatzia.

Proiektuaren xedea Matxixako bidea 8ko eraikinaren lehen solairuko forjatuaren hegalen egitura-indartzea da.

Aurkeztutako dokumentazio ekonomikoaren arabera, jarduketaren Egikaritze Materialaren Aurrekontua 61.416,00€ eurokoa da (59.116,00 euro, Hondakinen kudeaketa, segurtasuna eta osasuna eta kalitate kontrola kenduta).

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 22an, udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2026ko maiatzaren 25ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak



Sinadurea eta data



Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2025eko martxoaren 18an aurkeztu zen proiektua, eta 2026ko maiatzaren 22an egin zuen udal arkitektoak txostena. Azken horretan, lehenengoaren helburua honako hau zela adierazi zuen udal arkitektoak:

“1. Aurkeztutako memoriaren arabera, eraikinean hainbat pitzadura hauteman dira, bereziki lehen solairuko forjatuaren hegaletan, fatxaden barrualdeetan, etxebizitzetako sabaietan, balkoietako sabaietan, isurki-harrietan eta teilatu-hegaletan. Kalte nagusiak lehen solairuko forjatuaren hegalaren beherakadarekin edo deformazioarekin lotzen dira, gaineko sei solairuetako fatxadaren karga jasotzen duen eremuan.

2. Memoriak adierazten du eraikinaren egitura-sistema jatorrizko proiektuarekin alderatuta desberdina dela, beheko solairuan zutabe gutxiago daudela eta ez dagoela habe sakonik; hori pitzadurak agertzearen arrazoietako bat izan daitekeela jasotzen da.

3. Proposatutako konponbidea egitura metaliko bidezko indartzea da: HEB-120 profilez osatutako ménsulak eta HEB-220 perimetro-habeak jarriko dira, lehendik dagoen hormigo armatuzko egiturari ainguratuta.

4. Era berean, proiektuak instalazioen egokitzapenak aurreikusten ditu, besteak beste gas, elektrizitate, telekomunikazio eta ur-instalazioetan, baita elementu metalikoen trasdosatua eta akabera-lanak ere.”

Bigarrena.- 2026ko maiatzaren 22an, gainera, udal arkitektoak honako proposamena egin zuen:

“4. Proposamena:

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita, eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen kalterik gabe, teknikari honek aldeko txostena ematen du Matxixako bidea 8ko eraikinean lehen solairuko forjatuaren egitura-indartze lanak egiteko obra-lizentzia ematearen alde.

Lizentzia, hala badagokio, ondorengo baldintzen menpe emango da:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

5. Lizentziaren baldintzak:

5.1. Obra hasi aurretik bete beharrekoak

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie, eta, hala badagokio, zuinketa egiaztatzeko eskaera egin beharko da.

-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako aurrekontuan hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa 600,00 eurokoa da. Horren %120 aplikatuta, **hondakinen kudeaketarako fidantza 720,00 eurokoa izango da.**

-Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontrolako partidak kenduta. Aurrekontuaren arabera, **PEMa 61.416,00 eurokoa da, eta M06, M07 eta M08 kapituluak 600,00 €, 1.400,00 € eta 300,00 € dira, hurrenez hurren. Hortaz, kalkulu-oinarria 59.116,00 eurokoa da, eta urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko bermea 1.182,32 eurokoa izango da.**

-Aldamioak, plataformak, edukiontziak, hesitzea, acopioak edo jabari publikoa okupatzea beharrezkoa bada, baimen independentea eskatu beharko da, eta dagokion dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko da. Okupazio horri dagokion tasak udal ordenantza fiskalen arabera likidatuko dira, okupatutako azalera, iraupena eta erabilitako elementuen arabera.

-Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko



213/2012 Dekretuaren 44.2 artikularen arabera, eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, obrek 6 hilabete baino gehiago iraungo badute, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da, beharrezko neurri zuzentzaileak definituz.

-Lizentzia jabetza-eskubidearen kalterik gabe eta hirugarrenen eskubideen kaltetan gabe emango da.

5.2. Obra gauzatzeko baldintza teknikoak

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio, aldaketa horien egokitasuna balora dezan.

-Egitura metaliko berria gauzatu aurretik, proiektuan aurreikusitako babes antikorrosiboaren sistema behar bezala definitu eta justifikatu beharko da, **ingurune itsastarraren baldintza heze eta gaziekiko egokitasuna bermatuz**. Horretarako, gutxienez, gainazalaren prestaketa, imprimazioak, akaberak, lodiera osoa, aurreikusitako iraunkortasuna eta mantentze-sistema zehaztu beharko dira. Baldintza hori Código Estructuralaren 13. artikuluan ezarritako iraunkortasun-betebeharrekin eta UNE-EN ISO 12944 arauaren korrosioaren aurkako babes-irizpideekin bat etorri justifikatu beharko da.

Nolanahi ere, **obra amaieran egitura metalikoan benetan gauzatutako babes antikorrosiboaren justifikazio teknikoa aurkeztu beharko da**. Justifikazio hori aurkeztu ezean, ezin izango da obra-amaierako dokumentazioari udal adostasuna eman.

-Ménsula eta perimetro-habe berriek ezingo dute murriztu espaloia edo oinezkoen igarobideen altuera librea CTE DB-SUA 2 dokumentuko 2.1 apartatuan ezarritako baldintzen azpitik. Beraz, erabilera orokorreko oinezkoen igarobideetan, elementu berrien azpian, gutxienez 2,50 metroko altuera librea bermatu beharko da.

Obra amaieran, Zuzendaritza Fakultatiboak egiaztatu beharko du aipatutako altuera librea benetan bete dela, dokumentazio grafikoaren, argazkien edo



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEŞ SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



egokitzat jotzen den beste egiaztapen-bitartekoren baten bidez.

-Obra gauzatzean jarritako aldamioek eta bitarteko osagarriek, ahal den neurrian, ez dute beheko solairuko garaje eta lokalen ibilgailuen sarbidea eragotziko. Sarbide horien aldi baterako eragina saihestezina bada, kontratak eta Zuzendaritza Fakultatiboak alde aurretik koordinatu beharko dute Jabe Elkartearekin lanen antolaketa, erabilitzaileei eragindako kalteak minimizatzen eta segurtasun-baldintza egokiak bermatzeko.

-Egitura metaliko berriak CTE DB-SI dokumentuaren arabera aplikagarriak diren suarekiko erresistentzia-baldintzak bete beharko ditu, eta, hala badagokio, erabilitako estaldura edo babes-soluzioaren nahikotasuna justifikatu beharko da.

-Proiektatutako anklajeak, soldadurak eta lotura metalikoak behar bezala gauzatu direla egiaztatu beharko da obra amaieran. Era berean, hormigoieuskarriaren bateragarritasuna eta egoera erresistentea egiaztatu beharko dira, bertan egingo baitira egitura-konexio berriak. Horretarako, obra-amaierako dokumentazioan argazki-erreportajea, erabilitako ainguratze-sistemen fitxa teknikoak, material eta kontsumigarrien ziurtagiriak eta, hala badagokio, soldaduren, torlojuen, ainguratze kimiko edo mekanikoen eta hormigoieuskarriaren egiaztapenak jasotzea gomendatzen da.

-Lehendik dauden instalazioak aldatzen badira, lan horiek enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, eta instalazioen berriz jartzea, segurtasuna eta legalizazioa dagokion araudi sektorialaren arabera bermatu beharko dira.

-Obra gauzatzean egitura errealaren baldintzak hasierako proiektuan aurreikusitakoetatik desberdinak direla egiaztatzen bada, Zuzendaritza Fakultatiboak baliozkotu beharko du gauzatuko den azken soluzioa, eta aldaketa garrantzitsurik badago Udalarari jakinarazi beharko zaio.

5.3. Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko agintari eta teknikari eskudunen eskura.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hogeita zortzi hilabeteko epean amaitu. Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Epeak gaindituz gero, lizentziaren iraungipena izapidetu ahal izango da.

-Obrek irauten duten bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantza bete beharko da, eta bertan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.

-Obrek espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.

-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte. Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezingo da eraikigarritasuna handitu.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

-Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira, materialak edo lanabesak erortzea saihestuz eta behar diren babes, hesi, seinaleztapen eta antzeko neurriak ezarriz.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko kaleak eta espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.

5.4. Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Obra amaierako ziurtagiri bisatua.
- Obraren azken likidazio bisatua.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- *Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua eta, hala badagokio, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.*
- *Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.*
- *Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.*
- *Benetan gauzatutako egitura metalikoaren babes antikorrosiboaren justifikazio teknikoak.*
- *Ainguratzeen, soldaduren eta egitura-loturen kontrolaren dokumentazioa.*
- *Behin betiko egoeraren argazkiak.*
- *Aldatutako instalazioei dagozkien instalatzaile baimenduen ziurtagiriak, hala badagokio.*

112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko azken dokumentazioa aurkeztu beharko da, baimendutako kudeatzaileen ziurtagiriak barne.

6. Ondorioa

Azaldutako guztia kontuan hartuta, teknikari honek aldeko txostena ematen du Matxixako bidea 8ko Jabe Elkartek eskatutako obra-lizentzia ematearen alde, aurkeztutako proiektuaren arabera eta txosten honetan jasotako baldintzak betetzearen menpe.”

Hirugarrena.- Lizentziak emateko prozedurari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek, zein Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, honakoa izan beharko litzateke:

Lizentzia emateko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da. Eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Data: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



- Proiektua, teknikari eskudunak sinatua eta dagokion elkargoak ikus onetsia, indarrean dagoen araudiak hala zehaztean.
- Kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak eskatzen dituen baimenak.
- Dagokion emakida, egin nahi den egintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea dakarrenean.

Gure kasuan, 2025eko martxoaren 18an egin zen eskaera, eta udal arkitektoaren txostenean adierazten den legez, proiektuak honakoak jasotzen ditu: memoria, planoak, aurrekontua, erabilera eta mantentze jarraibideak eta dokumentazio osagarria.

Gainera, prozeduraren instrukzioan zehar lizentziak eragindako beste administrazio batzuek txostena egin behar izanez gero, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean txostena egin dezaten. Egiten ez badute, udalak prozedurarekin jarraitu ahalko du.

Horrez gain, lizentzia egin aurretik, udal zerbitzuek nahitaezko txostenak egingo dituzte, eskatutako lizentzia hirigintza legeriarekin bat datorrela adierazteko. Lizentzia ukatuz gero, hura arrazoitua izango da.

Udal arkitektoak 2026ko maiatzaren 22an egin zuen txostena; urigintza teknikariak, ostera, maiatzaren 25ean.

Laugarrena.- Eskumenari dagokionez, ostera, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua eta Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontuan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena da.

Hala ere, 2026 000001131 Alkatetza Dekretuz, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.

Bosgarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 210.7. artikulua arabera, aplikatu beharreko araudiak berariaz jaso ezean, ebazpen espresua emateko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, lizentzia eskaera aurkezten denetik, eta udalak zuzentzeko errekerimendurik egin ezean.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449
Data: 03/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Seigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 211.1. artikulua esanetan, obra lizentzia eskuratzeak egintzak burutzeko zilegitasuna ematen du, baita kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzekoa ere; hala ere, ezin izango dira inolaz eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza antolamenduari dagokionez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamenduarekin bat ez badatoz gerora, tresna berri bat onartzearen edo lizentzia ematean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arrazoituta adieraziko du desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez. Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati batean ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emango den zehaztuta.

Zazpigarrena.- Bestetik, Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 215. artikulua lizentziak izan beharreko gutxieneko edukia ezartzen du:

- Obrak hasteko epea: obrak, gehienez ere, 6 hilabeteko epean hasiko dira.
- Obrak exekutatzeko gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 28 hilabetetan exekutatu dira.
- Interesdunari dagokion arrazoi batengatik exekuzio epea etenda egon daitekeen gehienezko epea: obrak, gehienez ere, 3 hilabetez etenda egon daitezke interesdunari dagokion arrazoi batengatik.

Zortzigarrena.- Lurzoruari eta Urigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 216. artikulua arabera, obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengatik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, alde zurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



barik.

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Bederatzigarrena.- Horrez gain, lizentzia eman baino lehen honako fidantza hauek aurkeztu beharko dira udalean:

Fidantzak

1. Hondakinen kudeaketa

112/2012 DEKRETUA, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duenaren 5. artikuluan zehazten den fidantza jarri beharko da Udalean obrak hasi aurretik. Fidantzaren zenbatekoaren kalkulua eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren kostuan oinarrituko da (**600,00 €**), eta kostu horren % 120 izango da.

Eraikuntza- eta Eraispen- hondakinen ekoizpen eta kudeaketa fidantza **720,00 €**-koa izango da.

2. Urbanizazioan sor daitezkeen kalteak

Urbanizazioan sor daitezkeen kalteengatik **1.182,32€**-ko bermea jarri beharko da.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2025eko martxoaren 18an, 78873608F NAN zenbakidun andreak, Matxixako Bidea 8 jabe elkartearen izenean, Matxixako Bidea 8 zenbakidun eraikinean egitura indartzeko eskatutako lanen obra-baimena **onartzea.**

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

Obra hasi aurretik bete beharrekoak

-Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren eta lizentzia emateko tasaren likidazioa egin beharko da, eta dagokion zenbatekoa behar den moduan eta epean ordaindu beharko da.

-Sustatzaileak obraren zuzendaritza fakultatiboaren izendapena jakinarazi beharko dio Udalari, harremanetarako datuekin batera.

-Obrak hasi aurretik, Udal Zerbitzu Teknikoei obra-hasieraren berri eman beharko zaie, eta, hala badagokio, zuinketa egiaztatzeko eskaera egin beharko da.

-112/2012 Dekretuaren arabera, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketari dagokion fidantza jarri beharko da obrak hasi aurretik. Aurkeztutako aurrekontuan hondakinen kudeaketari dagokion zenbatekoa 600,00 eurokoa da. Horren %120 aplikatuta, **hondakinen kudeaketarako fidantza 720,00 eurokoa izango da.**

-Urbanizazioan edo jabari publikoan sor daitezkeen kalteei erantzuteko, obrak hasi aurretik dagokion bermea jarri beharko da. Berme hori egikaritze materialaren aurrekontuaren %2koa izango da, hondakinen kudeaketa, segurtasun eta osasun eta kalitate-kontrolako partidak kenduta. Aurrekontuaren arabera, **PEMa 61.416,00 eurokoa da**, eta M06, M07 eta M08 kapituluak 600,00 €, 1.400,00 € eta 300,00 € dira, hurrenez hurren. Hortaz, kalkulu-oinarria 59.116,00 eurokoa da, eta **urbanizazioari eragin dakizkiokeen kalteengatiko bermea 1.182,32 eurokoa izango da.**

-Aldamioak, plataformak, edukiontziak, hesitzea, acopioak edo jabari publikoa okupatzea beharrezkoa bada, baimen independentea eskatu beharko da, eta dagokion dokumentazio teknikoak aurkeztu beharko da. Okupazio horri dagozkion tasak udal ordenantza fiskalen arabera likidatuko dira, okupatutako azalera, iraupena eta erabilitako elementuen arabera.

-Euskal Autonomia Erkidegoko Hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



213/2012 Dekretuaren 44.2 artikularen arabera, eta Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantzaren arabera, obrek 6 hilabete baino gehiago iraungo badute, eragin akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da, beharrezko neurri zuzentzaileak definituz.

-Lizentzia jabetza-eskubidearen kalterik gabe eta hirugarrenen eskubideen kaltetan gabe emango da.

Obra gauzatzeko baldintza teknikoak

-Obrak aurkeztutako eta baimendutako proiektuari lotuta egingo dira. Proiektuan edo obra-soluzioan aldaketarik egin behar bada, aldez aurretik Udalari jakinarazi beharko zaio, aldaketa horien egokitasuna balora dezan.

-Egitura metaliko berria gauzatu aurretik, proiektuan aurreikusitako babes antikorrosiboaren sistema behar bezala definitu eta justifikatu beharko da, **ingurune itsastarraren baldintza heze eta gaziekiko egokitasuna bermatuz**. Horretarako, gutxienez, gainazalaren prestaketa, imprimazioak, akaberak, lodiera osoa, aurreikusitako iraunkortasuna eta mantentze-sistema zehaztu beharko dira. Baldintza hori Código Estructuralaren 13. artikuluan ezarritako iraunkortasun-betebeharrekin eta UNE-EN ISO 12944 arauaren korrosioaren aurkako babes-irizpideekin bat etorri justifikatu beharko da.

Nolanahi ere, **obra amaieran egitura metalikoan benetan gauzatutako babes antikorrosiboaren justifikazio teknikoa aurkeztu beharko da**. Justifikazio hori aurkeztu ezean, ezin izango da obra-amaierako dokumentazioari udal adostasuna eman.

-Ménsula eta perimetro-habe berriek ezingo dute murriztu espaloien edo oinezkoen igarobideen altuera librea CTE DB-SUA 2 dokumentuko 2.1 apartatuan ezarritako baldintzen azpitik. Beraz, erabilera orokorreko oinezkoen igarobideetan, elementu berrien azpian, gutxienez 2,50 metroko altuera librea bermatu beharko da.

Obra amaieran, Zuzendaritza Fakultatiboak egiaztatu beharko du aipatutako altuera librea benetan bete dela, dokumentazio grafikoaren, argazkien edo



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia

CSV: 07EA001677C100T1R9U7T3B4D0



egokitzat jotzen den beste egiaztapen-bitartekoren baten bidez.

-Obra gauzatzean jarritako aldamiok eta bitarteko osagarriek, ahal den neurrian, ez dute beheko solairuko garaje eta lokalen ibilgailuen sarbidea eragotziko. Sarbide horien aldi baterako eragina saihestezina bada, kontratak eta Zuzendaritza Fakultatiboak alde aurretik koordinatu beharko dute Jabe Elkartearekin lanen antolaketa, erabilitzaileei eragindako kalteak minimizatzen eta segurtasun-baldintza egokiak bermatzeko.

-Egitura metaliko berriak CTE DB-SI dokumentuaren arabera aplikagarriak diren suarekiko erresistentzia-baldintzak bete beharko ditu, eta, hala badagokio, erabilitako estaldura edo babes-soluzioaren nahikotasuna justifikatu beharko da.

-Proiektatutako anklajeak, soldadurak eta lotura metalikoak behar bezala gauzatu direla egiaztatu beharko da obra amaieran. Era berean, hormigoieuskarriaren bateragarritasuna eta egoera erresistentea egiaztatu beharko dira, bertan egingo baitira egitura-konexio berriak. Horretarako, obra-amaierako dokumentazioan argazki-erreportajea, erabilitako ainguratze-sistemen fitxa teknikoak, material eta kontsumigarrien ziurtagiriak eta, hala badagokio, soldaduren, torlojuen, ainguratze kimiko edo mekanikoen eta hormigoieuskarriaren egiaztapenak jasotzea gomendatzen da.

-Lehendik dauden instalazioak aldatzen badira, lan horiek enpresa instalatzaile baimenduek egin beharko dituzte, eta instalazioen berriz jartzea, segurtasuna eta legalizazioa dagokion araudi sektorialaren arabera bermatu beharko dira.

-Obra gauzatzean egitura errealaren baldintzak hasierako proiektuan aurreikusitakoetatik desberdinak direla egiaztatzen bada, Zuzendaritza Fakultatiboak baliozkotu beharko du gauzatuko den azken soluzioa, eta aldaketa garrantzitsurik badago Udalarri jakinarazi beharko zaio.

Obra bitartean bete beharreko baldintza orokorrak

-Interesdunak proiektuaren ale zigilatu eta baimendu bat izan beharko du obran, udaleko agintari eta teknikari eskudunen eskura.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



-Obrak lizentzia eraginkorra den egunetik zenbatzen hasita sei hilabeteko epean hasi beharko dira, eta hasi eta hogeita zortzi hilabeteko epean amaitu. Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio. Epeak gaindituz gero, lizentziaren iraungipena izapidetu ahal izango da.

-Obrek irauten duten bitartean, Zaraten eta dardaren aurkako udal ordenantza bete beharko da, eta bertan ezarritako ordutegiak eta gehieneko soinu-mailak errespetatu beharko dira.

-Obrek espazio publikoan, urbanizazio-elementuetan edo lurpeko instalazioetan kalteak eragiten badituzte, kalte horiek lizentziaren titularraren kontura konpondu beharko dira.

-Obrek Bermeoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren eraikuntza-ordenantzak errespetatu beharko dituzte. Lerrokadurak errespetatuko dira eta ezingo da eraikigarritasuna handitu.

-Segurtasun eta osasunari dagokionez, aplikatzekoa den lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia bete beharko da, bereziki 31/1995 Legea eta 1627/1997 Errege Dekretua.

-Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira, materialak edo lanabesak erortzea saihestuz eta behar diren babes, hesi, seinaleztapen eta antzeko neurriak ezarriz.

-Obrak dirauen bitartean, obraren eraginpeko kaleak eta espazio publikoak garbi mantendu beharko dira.

Obra amaitutakoan aurkeztu beharreko dokumentazioa

Obrak amaitutakoan, Udalari jakinarazi beharko zaio eta honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Obra amaierako ziurtagiri bisatua.
- Obraren azken likidazio bisatua.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidadea: Erregistro nagusia



- Obra amaierako dokumentazioa, memoria eta planoak barne, Zuzendaritza Fakultatiboak sinatua eta, hala badagokio, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia.
- Kalitate-kontrolaren ziurtagiria.
- Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena eta egiaztagiriak, 112/2012 Dekretuaren arabera.
- Benetan gauzatutako egitura metalikoaren babes antikorrosiboaren justifikazio teknikoak.
- Ainguratzeen, soldaduren eta egitura-loturen kontrolaren dokumentazioa.
- Behin betiko egoeraren argazkiak.
- Aldatutako instalazioei dagozkien instalatzaile baimenduen ziurtagiriak, hala badagokio.

112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko azken dokumentazioa aurkeztu beharko da, baimendutako kudeatzaileen ziurtagiriak barne.

HIRUGARRENA.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, proiektuan agertzen den kontrataren aurrekontutik aterata, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 61.416,00 eurokoa litzateke (59.116,00 euro hondakinen kudeaketa, segurtasuna eta osasuna eta kalitate kontrola kontuan izan gabe).

LAUGARRENA.- Lizentzia hau emandakotzat joko da jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe, eta titularraren erantzukizun eksklusibopean.

BOSGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizentziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

SEIGARRENA.- Errenta sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributatuak likidatzeko.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261472449
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26		Datea: 03/06/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



ZAZPIGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsoak adieraziz.

8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

9.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260602_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "**Tokiko Gobernu Batzarra 02-06-2026**" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

**36ac9d8869aadb066055f633aaa6122781612f5d5242280e20d133a71a
abe287**

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskur helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>



Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA001677C100T1R9U7T3B4D0

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 03/06/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 03/06/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 03/06/2026 11:38:26

DOCUMENTO: 20261472449

Fecha: 03/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

